



201. ZB.KO DEKRETUA.

Oiartzungo Haranean, bi mila eta hamarreko martxoaren hogeita bederatzian.

Ikusirik 2010eko martxoaren 18 datako 230 Dekretuan akats bat dagoela, hau da, Arragua auzoko ARR 1 A eremuan lurrazpiko aparkalekua gauzatzeko proiektuaren idazketa-lanen aurrekontua 58.500 € BEZ barne dela aipatzen da. Hori ez da zuzena, aurrekontua 58.500 € BEZ kanpo baita.

Era berean, jarri beharreko behin betiko bermearen kopurua, 2.521,55 €koa, gaizki dago. Aurrekontuaren baitan 2.925,00 €koa baita.

Hori horrela izanik, Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, honako hau ERABAKI DUT:

BLAS URBIZU ZABALETA delakoari behin-behineko esleipena egitea Arragua auzoko ARR 1A eremuan lurrazpiko aparkalekua gauzatzeko proiektuaren idazketa-lanak 58.500 €ko zenbatekoarekin (BEZ kanpo).

Era berean, 2.925,00 €-ko behin betiko bermea jarri (esleipen-kopuruaren %5, BEZ kanpo) eta gizarte segurantza eta Hazienda ziurtagiriak, eta NAN eta kaudimen ekonomikoaren agiriak kautotuak aurkeztu beharko ditu behin betiko esleipena egin aurretik.

Ordainketa 1 0302.643.432.00.01 (A/428-2010) diru-atalaren kargura egingo da.

Aitor Etxeberria Txurio Alkate-Lehendakari Jaunak agintzen eta sinatzen du, eta neuk, Idazkari naizenez, ziurtatzen.

